

GIL 81 Gesaltzako hobia



Leizeko ibilguaren ertzetan sedimentatutako ibai-metakin ugarien xehetasuna.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 59' 33,28" N
Long.: 2° 25' 16,60" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 547.176,37 m
Y: 4.760.152,98 m



Nola iritsi

Oñati herritik, hartu Arantzazuko santutegira igotzen den GI-3591 errepidea. Arrikru-tzeko leizera doan bidegurutzea alde batera utzi ondoren gutxi gorabehera 1 km egin eta gero, utzi automobila Gesaltza baserriko aparkalekuan, eta jaitsi ibaiaren ibilgura bidezidor gaizki seinaleztatu batean barrena.



Gesaltzako hobiaren aho nagusia.

GILaren deskribapen laburra

Gesaltza-Arrikrutz konplexu karstiko bat da, barne-loturak dituena. 14 km luze da. Gesaltzako ahoa Arantzazu ibaiaren ibilguaren hobi handi bat da; barrunbe karstikoetan barrena egiten du ibaiak bere ibilbidearen parte bat. Dolina erdizirkular motako hobi bat da, 0,82 km²-ko azalerakoa; emari handia du, zenbait m³/s-koa Arantzazu ibaia ur-goraldian dagoenean.

Gesaltzako hobiak zenbait solairu ditu; galeria aktibo bat du, eta zenbait galeria fosil ere bai. Ibilguan, hareharrizko bloke handiak eta hareazko sedimentua ageri dira; haien jatorria, beharbada, gaineko formazio tertziarioak dira, gaur egun higatuak eta ingurutik desagertuak. Hobiaren barneko ibilguan zehar, terraza-formako ibai-metakinak ikus daitezke; haiei esker, leizearen zenbait uholde-gertaera berreraiki daitezke. Sarreraren tamaina handiagatik —50 m garai eta 18 m zabal— eta barneko geologiagatik, hobi hau Gipuzkoako handienetako eta ikusgarrienetako bat da.

Barrunbearen barnean, espezie babestuak aurkitu dira. Gaur egun, Oñatiko Urjauziak udal-enpresak desbideratu egiten du Arantzazu ibaia ehunka metro batzuk gorago, hidroelektrizitatea lortzeko; beraz, hobiak euriteetan eta ur-goraldietan baino ez du funtzionatzen.

Ibaia zuzenean sartzen denez barrunbean, eta inguruetan baserriak daudenez, ingurunea oso babesgabea da leizerantz edo ibairantz drainatzen diren arro epigeoen kutsaduraren aurrean.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 65, GIL 81, GIL 82.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 65, GIL 68, GIL 82, GIL 83.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Hobi ikusgarria da, Arantzazu ibai osoa xurgatzen baitu.				

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/munibe/1957010028.pdf>
- Iñigo Arrizabalagaga (1992): "Introducción al estudio de los depósitos Cuaternarios en el complejo kárstico de Arrikruz (Oñati, Guipúzcoa)". Cuadernos de sección. Historia 20. 55-82. <http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/vasconia/vas20/20055082.pdf>
- Azkarate, X., Eraña, C., Olalde, A., Ugarte, S. (2003): "Estudio climático de la galería 53 de la Cueva de Arrikruz .sistema Gezaltza – Arrikruz – Jaturabe". Karaitza, 11, 4 – 15.
- <http://www.aranzadi-zientziak.org/fileadmin/docs/espeleologia/ConsFTG.Trabajo6.Octub.pdf>
- ALOÑA MENDI, (G.E. 1974). *Trabajos sobre el karst de SW de Guipúzcoa*. Oñate. Arg.: Udal Liburutegia, 101 or.
- ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA. (1996). "Gesaltza Arrikruz Multzo Karstikoa". Karaitza, 5. UEV/EEE San Sebastián- Donostia, 1933 or.